



**areago**  
**ISTORIOAK**  
**BELARRIETARA**  
**KONTAKIZUNAK**



**areago**  
**ISTORIOAK**  
**BELARRIETARA**  
**KONTAKIZUNAK**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Foru Diputatua  
DENIS ITXASO  
Kulturako Zuzendari Nagusia  
MARÍA JOSÉ TELLERÍA

#### **Argitalpena**

© IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA (Gipuzkoako Foru Aldundia)  
2016

#### **Zuzendaritza**

K6 GESTIÓN CULTURAL

#### **Testuak**

TXUS ARRIETA, GORKA AZKARATE, MIKEL BABIANO,  
AITOR FERNANDEZ DE MARTIKORENA,  
NEREA GUIJARRUBIA, PATXI ZUBIZARRETA

#### **Ilustrazioak**

AINARA ALTUNA, EIDER EIBAR, MAITE GURRUTXAGA

#### **Diseinua**

K6 GESTIÓN CULTURAL  
RAQUEL SÁNCHEZ GASCÓN

#### **Maketazioa**

RAQUEL SÁNCHEZ GASCÓN

#### **Moldiztegia eta Koadernaketa**

ARTES GRÁFICAS LOREA S.L.

#### **Ale kopurua**


300  
I.S.B.N. 978-84-617-5988-0  
L.G. SS-2142-2016




Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
KULTURA





## **AURKIBIDEA**

|                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| Hitzaurrea                          | 9  |
| Upelak daraman bidea                | 11 |
| Igartubeitiko sorgina               | 16 |
| Baserriko lagunak                   | 23 |
| Ai, Usoa!                           | 29 |
| Denboraren joana; oroitzeke beharra | 36 |
| Baserriak barre egiten duenean      | 40 |
| Kupela bete muztio                  | 46 |

Argitalpen honek Igartubeiti Baserri Museoak sustatutako *Areago. Istorioak belarrietara kontakizunak* euskarazko kontakizun laburren lehen eta bigarren deialdian saritutako kontakizunak biltzen ditu.

Areago ondare berrikuntza proiektua da, lenguai ezberdinen arteko erlazioaren bitartez, ondare eremuaren eta eremu artistikoaren arteko beste harreman mota batzuk aztertzen dituena.

Areagok soinu eta literatur dimentsioak landu ditu sortu zenetik, baserria eta bere ingurunea berriro bisitatzeara ahalbidetzen duten soinu ibilbideen bitartez eta gonbidatutako pertsonen sortutako kontakizun ezberdinak entzunez.

Oraingo honetan Areagok, kontakizunen laburren bitartez, parte hartzea, sorkuntza prozesuak eta Igartubeitiren inguruko narratiba berriak nabarmendu nahi ditu.

Aurkeztutako kontakizunak Igartubeiti Baserri Museoan oinarrituak daude eta soinu eremura egokitze gaitasunean enfasi berezia jartzen dute.

Argitalpen hau letren eta ilustrazio munduen arteko sorkuntza elkarriketa bat da ere, gonbidatutako hiru ilustratzaileak kontakizun ezberdinen berrinterpretazio ariketa bat burutuz.

Lehenengo deialdian, 2014ean saritutako kontakizunak:

1. saria: *Upelak daraman bidea*, **Txus Arrietarena**.
2. saria: *Igartubeitiko sorgina*, **Gorka Azkaraterena**.

Aipamen berezia lehen deialdian, 2014ean:

- Baserriko lagunak*, **Mikel Babianok** idatzia.  
*Ai, usoa!*, **Aitor Fernandez de Martikorenaren** kontakizuna.  
*Denboraren joana; oroitzeko beharra*, **Nerea Gujarrubiak** aurkeztua.

Bigarren deialdian, 2015ean saritutako kontakizunak:

1. saria: *Baserriak barre egiten duenean*, **Patxi Zubizarretarena**.
2. saria: *Kupela bete muztio*, **Gorka Azkaraterena**.

Kontakizunen interpretazio libre batetik abiatuz **Ainara Altunak**, **Eider Eibarrek** eta **Maite Gurrutxagak** ilustrazioak sortu dituzte.

Arrantza-ontzietan sagardo upelak edo bakailao bila joateko eramaten zituzten garaian, Pasaiako ontzietan Joxe zurgin iharrak itsasontzi bat amaitu eta uretara egiten zuenetan bere buruari galdetzen zion nolakoa ote zen itsasontzi hura hartuko zuen bale eta bakailaoen lurra, hainbestekoak zirenez kontaktzen ziren istorioak. Inoiz etsiak jota zenetan, dena bertan behera utzi, eta horrelako upel baten barruan sartu eta lur berri horietara alde egiteko gogoa pizten zitzaion.

Egun batean, gehiago ezinean, di-da, lehorreko bizimoduak gogaituta, idi gurdi batean ikusi zituen upeltzar pare bat, nonbait itsasoratzeko zain zeudela, eta ez bat ez bi, iluntzearekin upel hegaleko ateoia ireki, ogi mondrongo bi eskuan, bertara sartu zen. Joxek, laster ahaztu zituen ontziolako izerdi eta nekeak, itsas marinela amets izanik Flandes ezagutu, edota, areago, Indietako lur emankorrek ezagutzen zituela loak hartu baitzuen upelaren barruan. Nora ote zihoan upela eramango zuen itsasontzia? Nolako ate zen lurralde hura?

Biharamunean, berriz, gurdia martxan jarria zela konturatu zen, eta zirkinik egin gabe arnasari eutsi zion itsasontzian noiz sartuko. Itxaronaldiak, berriz, luze jo zuen: harrabots eta zalapartak urrunduz zihoazen eta itsasoaren zaratarik entzuten ez zirela Joxe estutzen hasia zenean, atea kanpotik itxita nonbait, zirrikitu batetik begia jarri eta belardia baino ez zuen ikusten, belardia! Nora ote zihoan upelak zeraman bidea? Oihu eta garrasi baina, alferrik, gurdia zeraman idi pare itsu zen uztarpean, eta gidari agurea gorrerriak jota zegoen.

Iluntzea izango zen, Igartubeitiko Mari alarguna Pasaiatik zetozen upel berrien zain zegoen. Bitartean, idi-orgaren karrankarekin upel barruan balantzaka, Joxe upel barruan lo zetzan, harik eta... isoooo! eta kriseilu batek argi egin zuen arte. Bat-batean, elkarrizketa bat entzun zuen, eta ondoren, makilakadaka zebilen bat edo bat

kanpoan. Joxe upel barruan urduritzen hasia, “lagundu, lagundu!” deiadarka hasi zen, baina kanpotik zarata mutu antzeko bat baino ez zen aditzen. Mari Igartubeiti alargunak, berriz:

-Miel! Deabru galantza upel barruan piztia sartu duena! Ekarri sarda derrepente! -agindu zion agureari- .

Agurea sardaren bila zihoala, upel barrutik doinu ezagun bat entzun zen:

*Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixtara,  
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra!  
Ama batek hazteko, hori zerbait bada  
Gure salbatzaileak kontserba dezala!  
Trala tralara tralara, kontserba dezala!*

-Piztia izateko, kantatzen ere bazekik!

Horrela ezagutu zuten elkar Joxek, -aurrerantzean maitekiro “Piztia” deituko zuena-, eta Mari Igartubeitik. Batak piztiaren lekuan kantaria topatu zuen, eta besteak Indietako lur eder eta oparoen lekuan Igartubeiti baserriko ugazabandre alarguna sagasti baten erdian. Imintzioak imintzio, ustekabeak, laster egin ziren elkarrengana, negu beltza ere bazen, eta giza-berotasun faltan ziren biak, bai Mari, eta bai Piztia.

Joxeren begitarteak atsedean hartu zuen Igartubeitiko sagasti eta Mariren besoetan, eta Mari alargunak nobiotarako ez bazegoen ere, jainkoaren (ala auskalo, deabruaren) oparizat hartu zuen Piztiaren bisita. Kontua da, gauero Joxek gogora ekartzen zizkiola ontziolan egin itsas ontzien edertasunak, eta Indietatik zetozen jantzi, espezia, ale eta fruituak oro.

Gau batean, Marik esan zion:

-Upel barrua betea zeukaat!

-Zer?

-Umedun nagok!

-?

-Egidak itsasontzi bat.

-Zer?

-Bai, ontziolan egin ohi huen itsasontzien tankerako bat, guk biontzako, eta sabelean daramadan haurrarentzako.

Mutila bada, Juan deituko da, eta neska bada, Andere.

Biharamunean, Joxe, Pasaiara itzuli, ontziolan ezagutzen zituen arotz, errementari, zurgin maisuak, igeltsero ofizialak eta etxegintzako beste zenbait lagun bildu, eta emazteak jarritako erronkari nola erantzun asmatu nahian jardun zuten:

-Itsasontzia egiteko ez zioke ba esan! Sekula halakorik! Non eta Ezkion! -zioen arotzak; “Haurdun zegok eta aditu behar” -zioen errementariak; ofizialak, berriz, “hori esateko euri galantak zetozek...!”; Joxek, ordea, argiena ez bazen ere, bazekien Mari emazteari sabel erno berriak hitz egin ziola, eta, beraz, berak bihotzez erantzun besterik ez zezakeela egin. Hartara, arotz, errementari, ofizial, igeltsero eta enparauak gurdian bildu eta Ezkiora eraman zituen, bolada baterako lanaren truk, edana eta jana aginduz.

-Mari, itsasontzirik onena egingo dinat, baserri-dolare ikusgarri bat!

Eta lanak hasi ziren: zurgin eta ofizialek ardatza eta habeak izango ziren haritz tantaiak hautatu, ebaki eta eraitsi, lera pare gainean garraiatu...; zerraz moztu, oholak egin, antolatu, jaso, josi... Hargin eta igeltseroek egituraren oinarria eta teilatua eman zioten. Igartubeitik Pasaiako ontziola zirudien Joxeren begietan. Mari kontent zen dolare berri ikusgarriarekin.

Dolare etxea martxan jarri zenean, berriz, monjorra izan zen Igartubeitin! Upel bete berriek eta hutsak zokor mazoarekin joz doinu garbiak ateratzen zituzten, dolarean sagarrak zanpatzearen tankeran. Pozik zen Joxe. Pozik ontziolako lagunak ere, makila bina eskuetan hartuta haritz-oholak joz zalapartan, zurak kantatu egin zuen gau hartan, ttakun tan ttakun. “Upela, upela...sagardoaren batela”, kanta ere ordukoa omen da.

Hurrengo urtean uzta oparoa izan zuten, bai sagardo aldetik, bai familia aldetik ere, Juan ez ezik Andere ere jaio zelako, bi baten orde. Guztiarekin ere, dolare berriak salmenta politik eginarazi zizkion Igartubeitiko dolareari.

Baina, hurrengo urteko sagar patsa egin berritan zirela, bisita berezia izan zuten Igartubeitin, inoiz ez bezalakoa. Erregearen zerbitzuko zaldun bat agertu zen, sonbreiru luze lumadun, ezpata gerrian eta lepotik behera kapa gorri eroria zeramala.

-Igartubeiti al da hau?

-Bai, jauna!  
-Erregeren zerbitzuko nauzue, eta sagardo upel salmenta ikaragarriak izan dituzuela eta, agindua dut dolareari dagozkion zergak biltzeko: sagar patsarekin hamarrena eta berria egin orduko beste hamarrena. Dakizuen bezala, errege jaunak guda latza du Flandes aldean eta hornikuntza oro behar izango dugu arerioak bentzitzeko.  
-Baina, baina... ez badaukagu sosik guretzat ere, dolarea egin berria da eta zordun gara askorekin!  
-Erregearen agindua da!  
Marik eta Joxek elkarri begiratu zioten.  
-Ondo da, jauna. Zatoz gurekin, erregek eta erregeren zerbitzariak begirunez artatu behar dira. Zatoz eta upeletako onena emango dizugu. Zerorrek dastatuko du zein ona dagoen aurtengo sagardoa- zuzendu zitzaion Joxe.  
-Sagardo honekin ez da munduan beldurrik! Edan nahi adina gizona, honek ez dakar kalterik. - gaineratu zion Marik.

Upel artean, txotx batean eta txotx bestean, bertso, kontu eta kanta luze aritu ziren erregeren zerbitzaria balantzaka hasi zen arte. Eta joateko imintzinoa egin zuenean:  
-Entzun ezazu orain, hemengo zurak zein musika duen!- ohartarazi zuten errege zerbitzaria.

Txalaparta atera zioten ondoren eta ttakun tan ttakun doinuetan aritu ziren harik eta sagardo eta upel artean zalduna, sonbreiru luze lumadun, ezpata eta kapa gorri eta guzti, edanda erabat braust! luze erori zen arte.

Gorreriak jotako agurea prest zegoen kanpoan gurdiarekin. Luze zetzan zalduna orgatila batean igo eta gurdi gainean zen upeltzarrean sarrarazi zuten. Zurrunga zegoela, Marik, sagar bat eskuan hartu eta ahoan sartu zion.

-Aire hemendik!  
-Norako da upel hau? -galdetu zuen agureak.  
-Igartubeiti baserri-etxeke partez, Indietara ateratzen den lehendabizikoan sartu... edo bestela, balea eta bakailaoetarako batean, Ternuan harrokeriak hoztuko zaizkio!

Joxek irribarrea ezpainetan lepotik heldu Mari emazteari eta zera xuxurlatu zion belarriari:  
-Alferrik zabilta, Mari. Ez dago sekula jakiterik zein den upel batek daraman bidea.



Egilea:  
Maite Gurrutxaga



# IGARTUBEITIKO sorgina

Gorka Azkarate

## KONTAKIZUNAREN LABURPENA:

Herriko erretorea eta bi arkabuzari Igartubeiti baserrira iristen dira. Kattalin Kortabarriaren aurkako salaketa dakarte, sorgina delakoan. Kattalinek ihes egiten du, eta arkabuzari bat berari tiro egitera doanean Martin Beitti txikiak arkabuzari hau zauritzen du. Gertarera honen ostean inork ez du berriro Kattalin ikusi, eta kondairak dio sorgin bihurtu dela...

**1.geldialdia:** erretorea eta soldaduak Igartubeitira inguratzen dira.

**Kokapena:** Baserriaren aurrealdeko baratza.

**Soinu efektu posibleak:** urratsak, arkabuzarien burdin jantzien kirrinka hotsak.

Narratzailea: Argitu orduko iluntzen duen neguko egun hotz batez, hiru gizonez osaturiko taldeak begi bistan du dagoneko Igartubeiti baserria. Kosta egiten zaie urrats bat ondorengoarekin kateatzea, bezperan botatako elur zuri urratugabearen gainean ibiltzea lan nekeza baita. Are gehiago, hiru gizon horietatik bik soinean daramaten burdin-jantzien pisua kontuan harturik. Gudarako jantziak lirudiketen gizon lerdanak, biak ere, arkabuzak eskuetan eta baleztak bizkarrean, zer gerta ere. Hirukoteko buru, Domingo Aranburu, Ezkioko San Migel parrokiako erretorea, ohi bezala sotana z jantzia, esku batean makulua eta bestean gurutze santua dituelarik. Zalantzen itsasoan noraezean doan txalupa ezdeus batek nola, halaxe igaro ditu erretoreak azken egunak. Baina, zalantzak-zalantza, goitik datozkion aginduak betetzera behartuta dago...



Egilea:  
Ainara Altuna

**Erretorearen gogoeta:** Ezkion bakean bizi izan gara beti, baina ezer ere ez da betirako, Jaunak hala erabakitzen badu behintzat. Argi dago, kontu honek ez duela bukaera onik izango. Nola izango du, bada, bukaera onik, sorgin-ehiza batek? Elkarrekiko ezinikusia, herra, horiek dira deabruaren benetako hatzaparrak, eta ez oinarririk apenas duten sineskeria funtsik gabeak. . . . Baina zer beste aukera daukat nik, Jaungoikoaren zerbitzari apal bezain leial honek, Eliza Santuaren esana betearaztea besterik?

**Erretoreak oihu egiten du baserrira begira:** etxeokak, entzun argi, mesedez! Erromako Eliza Santuaren izenean Kattalin Kortabarriaren aurkako salaketa bat dakarkagu. Herrian ez ezik probintzia guztian zabaldu da Kizkitzako basoan egiten diren ospakizun heretikoetan parte hartzen duela, deabruarekin berarekin harreman estua duela, Jaungoikoak libra gaitzala, eta hori guztia gutxi balitz, noiznahi entzun daitezkeela auzoan, deabruak hartua behar duen baserri honetatik ateratzen diren era guztietako oihu, txilio, deiadar eta aldarriak. Iriarte-Azpikoa baserriko Inaziok jarri du Kattalinen aurkako salaketa, eta lur hauetan inkisizio santuaren zaintzaile naizen aldetik, Kattalini galdera batzuk ein nahi genizkioke salaketa argitu dadin, bere ahotik entzun dezagun buruaren defentsan ezer baduen esatekorik ala ez!

2. geldialdia: Domingo Arregi etxeko atarira ateratzen da. Erretorearekin elkarrizketa.

**Kokapena:** Baserriaren ataria

**Soinu efektu posibleak:** atek zabaltzean egiten duen hotsa, burdin hotsak

**Narrazioa:** sardea eskuetan, behiei jaten ematen ari dela harrapatu dute Domingo Arregi, etxeko jauna, kanpotik datozen oihuek. Etxeko animaliek ere zer edo zer jan behar, neguko gordintasunean larrera irten ezinda hotzak akabatu ez ditzan. Asaldatuta, atarira inguratu da poliki-poliki. Erretorearen ahotza ezagutu izanak ez du lasaitzen, ahotan darabilen gaia arantzatsua baita oso: inkisizioaren mamua, non eta Beittin? Sorgina, nor eta Kattalin bere emaztea? Ezinezkoa iruditzen zaio. Parean dauzka erretorea eta urrunetik etorritako eta auskalo nork bidalitako bi arkabuzariak.

**Domingo Arregi:** Jaungoikoak egun on dagigula eta ongi etorriak izan zaitezela. Beti da pozgarria guretzat berorren bisita jasotzea, erretore jauna. Hemen gaude, betiko moduan, berorri zerbitzatzeko. Salaketa oso gogorra da, ordea, gaurkoan berori gurera ekarri duena. Igartubeitin ez da sekula sorginik bizi izan, berorrek ondo daki hori, eta nire emazteak ez du deabruarekin inolako harremanik, jauna. Hain dira basatiak handik eta hemendik entzuten diren istorioak. . . . Baina jakin beza berorrek gure jokabidea kristau zuzenen jokabidea dela, nahiz eta berori ohartuko zen moduan igandeko meza santua entzutera ez garen astero-astero joaten, baserriko lanak-eta, berorrek badaki. . . . baina hortik sorginkeriara tarte luzea dago, erretore jauna. . . .

**Erretorea:** bai, bai, aspalditik ezagutzen dugu elkar, Domingo, eta zaila egiten zait sinestea zure emazte Kattalin, Beittiko alaba lerdana, deabruaren hatzaparrak hartua egon daitekeenik. Baina salaketak bere bidea egin du, eta Gaztelatik iritsi berri den inkisidorearen aurrera eraman beharrean nago Kattalin, Lazkaoko dorretxera. Bertan izango du bere burua defendatzeko aukera.

**Domingo Arregi:** barka biezait berorrek, erretore jauna, baina ondo dakigu inkisidoreak zer nolako galdeketa egingo dion. . . . Nola onartuko dut berorrek egin didan proposamena?

**Erretorea:** ez da proposamena, Domingo, agindua da. Zure emaztea etxean al dago? Hobe izango du irtetea. Bai, Domingo, horixe izango da guztiontzat onena.

3. geldialdia: Kattalin Kortabarria sukaldearen atzeko gelako zulutik irtetzen da eta baserritik ihes egiten du.

**Kokapena:** Sukaldea

**Soinu efektu posibleak:** beheko suarena

**Narrazioa:** beldurrak aidean dago Kattalin, sukaldeko txoko batean kukuturik, ataritik datorkion elkarrizketa entzunez, dagoen lekutik mugitzeko ezgai. Instant batez zirrikitu guztietatik sartzen den hotza bera ere ez du

somatzen. Bihotza bizkortu zaio, odola borborka somatzen du bere zainetan barrena.

Kattalin: Baina, baina, zer arraio da hau? Inkisizioa gure etxean ate-joka? Sorgintzat hartu naute, baina nola liteke horrelakorik? Iriarte-Azpikoa baserriko Inazio, berak jarri du salaketa. Inazio, Inazio-Txiki... ene Jaungoikoa, garai batean ni gorteiatzen ere saiatu zena, orain nire salatari? Ezezkua eman niolako mendekua ez al da izango, bada. Edo agian bai, nork daki! Orduko hartatik zeharka begiratu izan nau beti, mesfidantzaz, eta Domingorekin ere sekula ez du harreman onik izan. Baina hau gehiegizkoa da. Ezin dut inkisidorearen aurrera joan. Gure belarrietara ere iritsi dira, noski, inkisizioaren inguruko albisteak, eta eurek entzun nahi dutena esaten dudan arte zigortuko naute, sutan erretzeko gero, bistan da. Inkisizioaren lurraldean salaketa hutsa zigor bilakatzen baita beti... Hemendik alde egin beharra daukat, edonora, mendira, Kizkitzako basora, eta handik urrunago. Inork ikusi gabe egingo dut ihes, nire bila sartzen direnerako ez naiz hemen egongo, bai, horixe egingo dut, gelako zoruko zulotik irtengo naiz kanpora, elurretara. Banoa!

4. geldialdia: zakurra zaunkaka, soldadu batek etxearen atzealdera jotzen du eta Kattalin mendian gora ihesi doala ikusten du, tiro egitera doa...

**Kokapena:** Baserriaren eskuineko hegala, kanpoaldean

**Soinu efektu posibleak:** zakurra zaunkaka, urratsak elurretan, burdin hotsak

**Arkabuzaria:** ixil hadi, zakur malapartatua, hik ere buruan tiro bat sartzea nahi al duk, ergel horrek? Ez al diate jaten ematen? Goseak al hago? Halaxe segi beharko duk, bada, gu ez gaituk hona zakurrei jaten ematera etorri. Sorgin baten bila etorri gaituk hona. Ez al hekien hire nagusiaren emaztea sorgina huala? Hik ere jakingo duk zerbait, seguru baietz. Urrunetik entzuten omen dituk baserri honetatik ateratzen diren oihuak eta txilioak, kirrika hotsak eta deiadarrak. Baina, zer da hau, elurra zapalduta dago hemen, hanka arrastoak dira, sorgina ihesi joan da, hara non doan elurretan gora, ez da oso urrutira iritsiko, ez horixe, orain jakingo du Soraluzen egindako arkabuzak zernolako zehaztasunez egiten duen tiro, bai, orain ikusiko duzu, sorgina halakoa!

5. geldialdia: Martin Beittik aitaren arkabuza hartu eta tiro egiten du arto biltegitik soldadu horren aurka.

**Kokapena:** Mandioa, artoa biltzeko eremua, erlauntzak dauden txokoa

**Soinu efektu posibleak:** urratsak egurraren gainean, haizea zirrikituetatik, erleen hegaldiak, tiro hotsa

**Narratzailea:** Martin Beitti, etxeko txikia, mandioan dabil jolasean. Udazkenean sagarra zanpatu ostean, geldirik izan ohi dute neguan dolare zaharra, atsedena hartzen balego bezala, lozorroan. Artoa lehortzeko biltegia du Martin Beitti txikiak etxeko txokorik gustukoena, baita erlauntzak dauden txokoa ere. Makina bat aldiz hartu izan dio kargu aitak, mandioan barrabaskeriak egiteagatik. Oraingoan, ordea, entzumena zorroztu du, behetik datozen hotsek eraginda. Biziraupen senak esaten dio zerbait larria ari dela baserrian gertatzen, jaso duten bisita ez dela ohikoa, eta zelatatzea erabaki du. Dagoeneko ez da ume bat, eta bere burua familiaren etorkizun oparoa zaintzeko gai ikusten du, nola bestela! Aitak mandioko kutxan gordetzen duen arkabuz zaharra hartzea erabaki du, badaezpada. Berak badaki arkabuzari tiro eginarazten, askotan ikusi dio aitari nola egiten den, usoak ehizatzea Atxurzako lepora igotzen direnean. Erlauntzak dauden zirrikitura gerturatu da, pauso isilez. Arkabuzari eusten lanak izanagatik, zirrikitu batetik kanpora begiratzeko moduan da. Bere ama ikusi du mendian gora, elurretan ahal duen bezala korri eginez, baserritik geroz eta urrunago. Behean, gudarako burdin-jantzia soinean daraman gizon handi bat ikusi du, tiro egiteko puntuan, arkabuzaren punta bere amarengana zuzenduta. Eta Martin Beitti hotzikara batek zeharkatu du goitik behera, zirt edo zart egiteko unea da, ume izatetik gizon izatera pasatzeko unea, “nire amatxo ez da sorgina”, nire amatxo ez da sorgina”... Eztanda ozen batek urratu du isiltasuna. Negua. Zuritasun erabatekoak estaltzen du guztia. Eztandaren oihartzuna eta berriz ere isiltasun erabatekoa. Gizon bat lurlean etzanda, artean bizirik, odolez zipriztindutako burdin-jantzi dizdiratsua. Zakurrak zaunka egiten jarraitzen du.

## 6. agertokia: dolarean azken gogoeta, sorginkeria

**Kokapena:** Dolarea

**Soinu efektu posibleak:** piseiekin sagarra jotzea, baserriaren negarra dolarea lanean ari denean, bertsoa kantatzen ari den taldetxoa

**Narratzailea:** Bai, Kattalinekin inkisizioaren hatzaparretatik ihes egitea lortu zuen, eta inork ez zuen berriz ere ikusi. Kizkitza aldera egin zuen ihes, baina auskalo. Mendiak berak irentsi izan balu bezala, sekula ez zen gehiago bere berririk iritsi inguruotara. Kizkitzako basoan lan egiten zuen Martin Belsagasi ikazkinari ere sarritan joan zitzaion jendea galdezka, baina ezer ere ez. Egun hartan, Martin Beittik arkabuzari hura tiro batez larriki zauritu ostean, erretorea eta beste arkabuzaria Kattalinen arrastoari segika mendian goruntz abiatu ziren elurretan, baina une batean Kattalinen urratsak desagertu eta elur zapaldu gabearekin topo egin zuten bi jazarleek. Harrigarria zen, Kattalin bat-batean desagertu izan balitz bezala... Kondairak dio indar ezkuturen batek Murumendiko Mariren gotorlekura eraman zuela Kattalin, agian Marik berak, bizkarrean hartuta, hegaldi zoroan. Hara hor, sorgin izatea leporatu ostean mendira ihes egin zuen emakumea, benetako sorgin bilakatua... Diotenez, orduz geroztik Igartubeitiko dolarea lanean jartzen da aldiro, baserriaren kirrinka hotsak eta intziriak lau haizetara zabaltzarekin batera, Kattalin hegan etortzen omen da mandioko txoko batera, eta bertan egoten omen da, egurrezko egiturak sagarrak zanpatu eta muztioa ikuiluko kupelera iritsi artean, sagar zanpatu berriaren usain gozoak lagundurik garai bateko oroitzapenei bizia eman eta etxeokoin egoteko asmoz. Beittitarrek, gainera, ba omen dakite sagarra zanpatzeak euren bihotzeko Kattalin erakartzen duela, eta horrela kantatzen omen dute, sagarra piseiekin jo ahala:

*Udan zein neguan berdin  
lanean gogor, beti fin  
zure familiarekin.  
Zorigaiztoko egun batean  
bihurtu zintuzten sorgin,  
eta etxetik aldegin,  
joan zinen bezala, arin,  
zatoz gugana Kattalin!*

# BASERRIKO lagunak

Mikel Babiano

## 1. geralekua: baratzeko bidexkaren hasieran

Guau, guau! Kaixo lagun, ongi etorri Igartubeiti baserrira! Ireki ondo begiak, ez al da ederra? Pentsa, egurrezko xafla hoiiek bostehun urte inguru dute... Ondo entzun duzu, bai, bostehun urte! XVI. mendekoa da Igartubeiti, baserriak egurrezkoak ziren garai urrun, urrun hartakoa! Ikusi al duzu inoiz baserri zaharragorik? (*segundo batzuk isilik*) Ezetz? Gozatu ba gaurko egunaz! Egia esatea nahi baduzu, maiteminduta nago ni. Maiteminduta munduko txoko eder honetaz, maiteminduta aurrez aurre duzun baratzeaz, maiteminduta baserri zahar eta berri honetaz. Guau, guau! Bai, baserri zahar eta berri honetaz. Nola? Bostehun urte inguruko baserria ez dela berria? Baietz uste dut nik ba! XVI. mendekoa da Igartubeiti, konforme, baina bizi-bizirik dago gaur egun ere, erakusteko gauza piloa du ta zu ezagutzeko irrikaz dago. Gainera, sekretu handi bat ezkututzen du bere bihotzean, sagardoarekin zerikusia duen sekretu handi-handi bat... Ikusiko duzu, guau guau! (segundo batzuk isilik) Aizu, nola duzu izena? Esan al dizut ni Pintxo naizela? Urte askotarako, lagun! Bai, Pintxo dut nik izena ta hamentxe, Igartubeitin, bizi naiz ni aspaldi-aspalditik. Ahh, hamengo pakea! Hamengo janaria! Hamengo lagunak! Ahh... Hoiak bai altxorrak! Ez nituzke, ezta pentsatu re, munduko ezerekin truke aldatuko! (*segundo batzuk isilik*) Tira, ez naiz ixiltzen eta baserria ezagutzeko gogoz egongo zara honezkerok. Barkatuko didazu, txakur zaharroi izugarri gustatzen zaigu-ta zu bezalako lagun jatorrekin kontu kontari aritzea, badakizu... Tira ba, asko disfrutatuta ta laster arte, guau, guau!



## 2. geralekua: baratzeko bidexkan, lihoaren ondoan

Beeeee, beeeee! Giro atsegina kanpoan egoteko, ez hala? (*segundo batzuk isilik*) Nola? (*segundo batzuk isilik*) Jesus, ezin al duzu apur bat ozenago hitz egin? (*segundo batzuk isilik*) Anyway, bazkaltzeko ordua da, eta gose naiz! Belar goxo-goxoa dugu Igartubeitin, bai jauna. Ñam, ñam, apur bat nahi duzu? Beeeee, beeeee! Ase arte jan dezakezu hamen, belar berde ta freskoa, yes of course... Begiratu eskuinera. Ikusten duzu hor goiko herria? Ezkio da. Ikusten dituzu inguruko belardiak? Edeerrak, ezta? Mmmm, hau bai belar goxoa, eta ez Estatu Batuetan. Nevada eta Kaliforniako paraje urrun haietan, ematen ziguten belar siku-siku-sikua. Puaj! Hamengoa bai belar goxoa... Beeeee! Begiratu baratzera, bai, ikusten duzu landare luzexka hori? Lihoa da. Zortea baduzu lore urdinxkak ikusiko dizkiozu, eta zorterik ez baduzu, berriz, ez. Garrantzitsua da lihoa, very important, eta gauza asko egiteko balio du: jantziak, izarak, zapiak... Baserriaren barruan lihoa lantzeko tresnak daude, ea topatzen dituzun! Hitz eta pitz, gosea sartu zait berriro. Axola ez badizu, belar apur bat jango dut... Ta... porru bat probatuko banu? Edo ez, oraindik ere gogoan dut Kattalinen errieta aza bat jateagatik... Beeeee, beeee, oroitzapenak, oroitzapenak! Oh my god, gogoan duzu etxeko guztiak hamentxe bertan bildu ta gizon arraro hark argazkia atera zigunekoa? Nola gogoratuko duzu ba, gaztetxoegia zara-ta! Lihoa garrantzitsua izango da, ok, baina baita ardiak ere! Ikusi dituzu baserriko koltxoiak? Ezetz asmatu zerezkoak diren! Eta gazta, nori ez zaio gazta gustatzen? Eta mamia? Mmmm... Anyway... Kasurik ez gero behiei eta idiei ardiak baino garrantzitsuagoak direla esaten dizutenean, hoiiek berekoi hutsak besterik ez dira-ta! Kasurik ez hoiel! Gainera, beraiena da ukuiluaren zatirik handiena, beeee, beeee, ta ez dago eskubiderik! Anyway, ukuilua gora ta behera, logura sartu zait... Ta, axola ez badizu, pixka bat lo egingo dut, bye bye...

## 3. geralekua: arkupearen eskuineko txokoan (sukaldeko leihoaren aurrean)

Kurrurrukuuuuu! (*azkar irakurri*) Ene bada, zu hemen, eta ni piura honekin! Zer pentsatuko ote duzu niri buruz... Ene bada, ez da egia izango! Ez da egia izango gure hitzordua ahaztu dudala! Unetxo bat, arren, agendan begiratuko dut... Unetxo bat, mesedez... Jainkoarren, non dago nire agenda? Ez dago bazter



Egilea:  
Eider Eibar

honetan, ezta hemen ere, ea landare lehor hoién atzean... Ez, ez, ez... Kukurrukuuuu! Eta andere mahatsaren ondoan? Tira, geroago bilatuko dut. Barkatu atzerapena, mesedez, Margaritarekin eta Isabelekin egon naiz, eta berandutu egin zait. Dutzatzeko denborarik ere ez dut izan! Ene bada, zer pentsatuko duzu niri buruz... Egia esango badizut, lehenengo aldia da hitzordu bat ahazten dudana, baina badakizu, Maria Luisak eta Anak txora-txora eginda naukate. Tira... Eta Eugeniak... Eta Kleopatrak... Eta Victoriak ere bai... Neskak, neskak! Kukurrukuuuu! Bart gauean afaltzera gonbidatu nuen Nefertiti. Ene, ez dut sekula ahaztuko! Goxoak zeuden gure zizareak, baina haren begirada... Ez dut haren begirada sekula ahaztuko! Paparra harrotu eta zera xuxurlatu nion: "Nefertiti, zure begiak zeruko izarrak baino distiratsuagoak dira". Eta esango nuke gustatu zitzaiola, irribarre egin zuen-eta mokoaren puntaz... Hori guztia ilargipean, noski. Ez zaizu erromantikoa iruditzen? Ondoren alde egin zuen Nefertitik, gaur arrautzak erruteko goizean goiz altxatu behar zuela-eta. Egia esango badizut, nik ez dut gaaau guztian begirik jo, 10:00ak aldera esnatu naiz, kukurrukuuuu, eta ezin aparta dezaket Nefertiti nire burutik... Margaritarekin eta Isabelekin egon naiz ondoren. Orain badakizu, horregatik iritsi naiz berandu gure hitzordura, barkatu, arren. Ene bada, zu hemen, eta ni piura honekin... Zer pentsatuko duzu niri buruz? Dutzatzeko denborarik ere ez dut izan... Aizu, buztaneko lumak eskuinerantz orraztu behar nituzkeela uste duzu? Edo ezkererantz hobeto? Pintxok ezkererantz dio, baina ez dakit... Mmmm... Zuk zer uste duzu? (*segundo batzuk isilik*) Ene bada, izugarri berandutu zait! Barkatuko didazu, Leonorrekin dut zita hamar minutu barru, sukaldeko ogi egin berri hori probatzeagatik! Ene bada, bost minutu, eta ni dutxatu gabe, zer pentsatuko ote du Leonorrek niri buruz! Axola ez badizu, beste batean kontatuko dizkizut baserriaren ingurukoak, ados? Banoa orain, korrika ta presaka, zain dut-eta nire erregina.

#### 4. geralekua: arkupearen ezkerreko txokoan

(*bi ahots, biek baxu hitz egiten dute*) 1. AHOTSA:...bzzzz, bzzzz... Eta orduan hi zzzzutabe horren atzean ezzkutatuta eongo haizzz... Zzzzz...zzzz... eta nik katuari ezzango zzzzioat... 2. AHOTSA: baina ez dal da arriskutsuegia, jauna? Eta ikusten banau? Zer esango diozu orduan eta zer... 1. AHOTSA: Pssssss!! Norbait zzzzetorrek...2. AHOTSA: baina er esango diozu ordu... 1. AHOTSA: Ixo!! (*segundo batzuk isilik*) Ahh, iepa,

lagun, hi haizzzzz! 2. AHOTSA: uf, a ze sustoa eman diguzun! 1. AHOTSA: zuzzztoa? Hitz ein ta hitz ein ixildu re ezzz haizzzz ta hi, zzzzzz! 2. AHOTSA: barkatu, erle jauna... Ehh, zera, ehh, zertan ari garen kontatuko diot? 1. AHOTSA: zzzzeatik ezz ba, kontaukotzak, kontautzak, ni nekauta neok-ta zzzzz hainbeste hitz eiteazzz, ta ez zzzzaidak atzedén apur bat e gaizzzki etorriko... 2. AHOTSA: kontatuko dizut ba, igual lagunduko diguzu-ta. Tira, kontua da erle jauna ta ni aspaldiko lagunak garela. Elkarrekin hazi ginen ia-ia, lgartubeitiko ganbaran, ta bizilagunak izan ginen denbora luzean. Bizilagunak eta lagunak. Tailerraren aldameneko gelatxoan bizi zen bera, familiarekin, eta ni, berriz, larruak lehortzeko txokoan, nire amarekin ta hamazazpi anaia-arrebekin. Non zegoen nire aita? Zerikusia ote du aita desagertzeak ganbarako altxorraren kontuarekin? Askotan galdetu nion amatxori, baina ez zidan sekula erantzun, ezta katu beltzak irentsi zuen goiz hartan ere. Poliki-poliki, katu beltzak, deabru iletsu alaenak, nire anaia-arreba guztiak akabatu zituen, bata bestearen atzetik, gupidarik gabe, ta bakar-bakarrik geratu nintzen. Snif, snif... Gogorra da gero xaguon bizitza, ez zaizu iruditzen? Bien bitartean, erle jaunari laguntzen jarraitu nuen; izugarri estimatzen dituzte etxekoek erleen ezti eta argizaria eta, horregatik, haien bila igotzen dira askotan ganbarara, baina ni ganbaran bizi nintzenean Kattalinen oinen artean korrika egiten nuen bixkor-bixkor... Ta Kattalinek beldur haundia gaitu guri, ta horregatik ni ikusi orduko buelta erdia eman ta beheko solairura itzultzen zen, garrasika. Esan, esan, hain itsusia al naiz? Tira, kontua da lasai-lasai bizi izan zirela erleak bolada batean, baina bolada batean bakarrik, ganbaratik ospa egitea erabaki nuen arte, katu beltzaren beldurrez. Gogorra da gero xaguon bizitza! Beti ihesean, beti beldurrez, snif snif... Baratzean bizi izan naiz hilabete hauetan, gogorra da gero bizitza, ez gaitu inork maita! Snif, snif... Ta kontua da erle jaunak nire aita ikusi duela gaur, bizi da, ganbaran ezkutatuta dago, ta bertara iristeko etxera sartu behar, inortxok ere, ez oiloek, ez idiek ta are gutxiago katuak, ikusi gabe... Ulertzen duzu? Horregatik gabiltza erle jauna ta ni hemen... 1. AHOTSA: horize, bzzzz, lagunduko diguk, lagun? Ozo zzzinplea dek... In beharreko gauzza bakarra zarrerako atera zzzzz hurbildu ta bakar-bakarrik zzz hagoenean begi bat izztea dek... Gurezzzzzako zeinalea izzzango dek hoi ta nik katua dezzzzpizzzztatuko diat orduan ta gure laguntxoa zzzzz barrura zzzartuko dek... Lagundukoiguk? 2. AHOTSA: ez esan inori ikusi nauzunik, mesedez, ta zorte on!

## 5. geralekua: baserriko atean

Hemen zaude. Iritsi zara, azkenean. Bart zurekin egin nuen amets, eta banekien gaur etorriko zinela. Estimatzten dut zure bixita. Nor naizen galdetuko diozu, akaso, zure buruari. Ea asmatzen duzun... Apur bat lagunduko dizut: iragana naiz, oraina eta etorkizuna... Belaunaldi asko eta askoren jakituriaren zaindaria... Ondare bizia eta sekretu, misterio eta altxorren iturri agortezina... Oraindik ez? Egurrezkoa eta harrizkoa da nire eskeletoa... Bi solairu ditut... Bostehun urte inguru... Horixe da eta, azkarra zara gero! Igartubeiti baserria naiz, eta zu ezagutzeko irrikaz nengoen. Zer moduz zaude, lagun? (*segundo batzuk isilik*) Hemen zaude. Iritsi zara, azkenean. Ondo zaindu al zaituzte nire animaliek? Dagoeneko kontatuko zizuten zer edo zer niri buruz... Kontatu al dizute lihoarena? Eta erleena? Eta mamuena? Mamuena ez? Ba mamu batzuk bizi dira hemen, baina lasai, ez dute-eta ezer egiten... Ea ikusten dituzun! (*segundo batzuk isilik*) Gauza asko diote adituek nire inguruan: Euskal Herrian ni bezalakorik ez dagoela, oso ondo islatzen dudala euskal baserriaren eboluzio historikoa, sagardoa egiteko makina erraldoia naizela... Gauza asko eta asko konta nezake nik ere, baina ez dut nik orain nire buruari buruz hitz egingo, nahiago dut-eta zuk zeuk, poliki-poliki, edo apur bat azkarrago, zeure kasa, nire erraiak, nire historia eta nire istorioetan murgiltzeko eta haiek deskubritzeko aukera bazenu... (*segundo batzuk isilik*) Jar ezazu esku bat atearen gainean, lotsarik ez gero, jar ezazu ba! Laztan ezazu ateko egurra. Sentitzen duzu? Sentitzen nauzu? Hori naiz ni, Igartubeiti (*segundo batzuk isilik*). Zure txanda da orain. Zuri dagokizu deskribatuko nauten hitz ederrenak asmatzea. Ongi etorri nire baitara. Ongi etorri zure baitara.

**OHARRA:** Ibilbide akustiko hau ume eta gaztetxoei zuzenduta dago batik bat, baina edonork egin dezake, jakina. Kontakizunak nahierara luzatu, laburtu edo egokitu daitezke, baita hizkuntza aldetik (euskara batua, euskalkia...) ere. Amaitzeko, baratzearen inguruan girotu ditut istorioak, Maialen Lujanbioren eta Arantxa Iturberen ibilbide akustikoak egin nituenean baserriaren barruan entzuteko arazo teknikoak izan nituelako. Hala ere, ez legoke inongo arazorik, testuak apurtxo bat moldatuz gero, kontakizunak beste edozein lekutan kokatzeko.

## AI, USOA!

Aitor Fernandez de Martikorena

Dena zen jai-giroa: sagardotegira ginen joatekoak euskaltegikook.

Gure ikasgelatik, bi baino ez: Usoa irakaslea eta biok. Inoiz basamortuko jenioa agertu balitzait eta gurari bat betetzeko eskaini, horixe bera eskainiko niokeen: Usoarekin batera “sagardotegiratzea”. Aspalditik atsegin zitzaidan Usoa (beno, 20 bat urte duzunean, oso motel igarotzen da denbora; beraz, garai hartan, txit luzea iruditzen zitzaidan urritik otsailera arteko epea), izugarri atsegin ere.

Sagardotegian afalduko bagenuen ere, arratsaldeko lauretan hartu behar genuen autobusa. Zergatik? Bada, Udalak ordaintzen zuelako txango “kultural”aren zati bat. Zehatzago esanda: Kultur Etxearen diru-laguntza genuenez (herrian euskara sustatzeagatik, noski), ona zatekeen-antolatzaileen uste zuhurrez- ekintza hari ukitu intelektuala eranstea; izan ere, ez bide zen sobera logiko, ezta oso “zilegi” ere, zergapekoen sosekin pagatzea zenbait euskara-ikasleren afari-mozkorra... Hortaz, sagardotegira aurretik bisita kulturalen bat egitea otu zitzaion antolakuntza-taldeari.

Ataunen afalduko genuenez (irakasle zein ikasle beteranoak gogaituta baitzeuden jada Hernani-Astigarraga-Usurbil hiruki mitikoaz), Ezkio-Itsason egingo genuen geldialdia, Igartubeiti izeneko baserri zahar bat ezagutzeko. Horrek guztiak nahitaez zekarren, gustatu ala ez gustatu, irteteko ordua aurreratzea. Honelaxe finkatu zen plana: 16:00etan, autobusean; 17:30ean, ikustaldi hura; 20:00etan, pote batzuk Ataungo tabernetan (bat baino gehiago ote ziren? Ez genekien artean); 21:30ean, sagardotegira; azkenik, 02:00etan, etxerako buelta.

Gauzak horrela, gutako batzuek “hobetu” egin genuen egitasmo ofiziala: bazkari “alternatiboa” eratu genuen auzoko jatetxe merke batean. Egiaz, ez zen jende-andanarik bildu gure proposamenera, baina egon ginela benetan inportanteak: Usoa eta ni neu.

Otordu erdi-inprobisatu haren helburua zen taldea desinhibitzea bidaiari ekin baino lehen (euskaltegiko eskolen gisara, bai). Xedea hori bazen, ederto bete genuen, ziru: bizpahiru ardo zuri bazkaltzerakoan, hiruzpalau ardo beltz bazkaltzean eta beste horrenbeste patxaran bazkaldutakoan... Gazteak ginen, eta gure gibekek, garai hartan, osasuntsu samar zirauten. Hitz bitan, poz-pozik geunden busera hurbiltzerako. Gainera, halako batean sumatu uste nuen Usoak ezohiko keinu bat igorri zidala, irribarre goxoa eskaintzearekin batera (eguneko lehena; ez, baina azkena). Onartu, aitortu behar dut emozio bortitz batek inarrosi ninduela, neure kautan “Ez da ezer, irudipen hutsa izan da” pentsatzen nuelarik ere.

Autobusean -zortez baino, nire ekimenez-, Usoaren ondoan esertzea erdietsi nuen; kosta ahala kosta, argitu nahi nuen ea arestiko imintzioek ate emozionalen bateko giltza eskura jartzen zidatenetz, ala, besterik gabe, ene barru-barruko apeten isla besterik ez ziren izan. Hasieran, euskara-eskolen inguruko pasadizo, txiste, esamesa eta iritziek bete zuten gure hizketaldia; laster, baina, eremu pertsonalagoetara lerratuz joan zen solasa: iritsia zen konfidentzien ordua. Hala jabetu nintzen Usoa ez zela lar zoriontsua; neska onegia zen, sineskorregia, eskuzabalegia gizonekin... eta izaera xalo horrek dezepzio anitz sortua zion; mutilok ez omen ginen fidatzekoak, gehiegi baliatzen ginelako, geurekoikeria ankerraz, nesken ahuleziez, gure probetxu soilerako...

Nik erantzun nion, “zaldun” plantak eginez, txantxetan jardun behar zuela: nola zen posible bera bezalako emakume eder batek (ilegorria, begi argiduna, altua, polita eta lerdana zela ere pentsatuagatik, isildu egin nituen adjektibook), horrelako aingeru batek arrakastarik ez jadestea beste sexukoen artean? Eskerrak, nire adeitasunak izan zuen saririk: irriño herabea eta musu ez horren lotsati bat ezkerreko masailean. Nik paradisuan nabaritzen nuen neure burua, ez bakarrik alkoholaren eraginez. Hura izan zen lehendabiziko pa bidaiari, askoren aitzindari...

Esango nuke espedizioiko ezain kidek ez zuela gauza handirik espero baserri zahar hartatik; alta, ezusteko ederra jaso genuen bertara iritsi bezain laster: harrera-gune dotorea, egurrezko arkitektura txundigarria, dolare erraldoia, hango gelen ugaritasuna eta erabilgarritasuna... Iñork uste bazuen orain dela 500 urteko euskaldunak leloak zirela, horra gerturatu besterik ez dauka; aurki konturatuko da zein oker dabilen! Usoak eta biok, gainera, aparteko osagai bat gehitu genion arkitektura-historia-etnografia koktel hari: erotismoa.

Kontatu berri dudan moduan, ederto batean ibili ginen autobusean, musuka eta laztanka. Bada, museora sartzeak ez gintuen epeldu, alderantziz baizik. Hala, taldea, gidaria buru zela, antigoaleko logela batetik jalgitzean, Usoa bertan gelditu zen, ohea adi-adi aztertzen zebilelako itxurak eginez. Bat-batean, zera bota zidan, ahots jostalariaz, iruzkinik arruntena balitz bezala:

-Pena, txikiegia da gu biontzat.

(Telebistako dokumentalak ez ohi dituzte nerabe/gazteen erreakzio sexualak aztertzen-animaliena bai, baina ez gizakiena, auskalo zergatik-; hala ere, merezi luke, oso-oso bitxiak izan daitezke-eta, batez ere gizonezkoen kasuan. Nik ez dut zertzelada gehiagorik emango gai horri buruz, baina erraz imajina dezakezue zelan nengoen).

Aurreko berbak aski ez zirelakoan-edo, zera erantsi zuen, doinu iradokitzaileaz:

-Sagardotegitik bueltan, nire etxera joan gintezke. Gurasoak kanpoan dabilta, bidaiari. Koloreak irakatsiko dizkizut; begiratu: hau, adibidez, morea da.

Eta, apurka-apurka, atorraren goiko botoiak askatzen hasi zen: bat, bi, hiru...harik eta bular oparoen arteko bidexka bistan laga zuen arte. Bai, titi-zorro morea zeraman, eta huraxe zen, ezbairik gabe, ordura arte ikusi nuen ubelik erakargarriena.



Gure falta ez igartzeko, berehala batu gintzaizkien kideei (ez genuen nahi zurrumurrurik sortzerik gutaz, nahiz eta berandu izan ordurako: ibilgailuetako jesarlekuak ez dira, izatez, habitat isolatuak). Une horretan, Usoak komunera joateko gogoa adierazi zuen. Badakit zer pentsatzen ari zareten; neuri ere otu zitzaidan neskari laguntzea, baina ezetz esan zidan, maitekero.

Hiri-kondairek diote neskek denbora nahikotxo behar izaten dutela premia fisiologikoei aurre egiteko. Baliteke, baina 5 minutu iragan zirenean Usoa itzultzeke, kezka moduko zerbait ernetzen hasi zitzaidan. 10 minuturren buruan, berantetsita, neu joan nintzen komunen bila, Usoak arazoren bat izango zuelakoan (paper-falta, zorabioren bat, zer dakit nik!). Han, ordea, ez zegoen inor. Zera idoro nuen soilik: haren belarritako bat, eguzki-lore itxurakoa. Taldekoengana bueltatu nintzen orduan, Usoa haiekin egongo zelako ustean. Ez, bada.

Batzuei eta besteek itaundu nien: inork ez zekien deus ere. Non ote zebilen? Olgetan ziharduen, akaso, nik bera topatzea nahi zuelarik? Agian, horregatik bota zuen, nahita, zirtzilua lurrera? Ideia horrek bultzatu ninduen baserria arakatzera: goian, behean, gela nahiz biltegieta, hormen atzetik, txokoetan... toki guzti-guztietan miatu arren, ezin izan nuen haren kausitu arrastorik txikiena ere. Larritasun bilakatu zitzaidan kezka.

Beste irtenbiderik ezean, Marta gure arduradunari jakinarazi nion ustezko desagertpena. Hasiera batean ez zidan jaramon handirik egin: Usoak ahaideak zeuzkan Gipuzkoan, eta, apika, haiekin antolatua zuen hitzordua; neska hura, dagoeneko “nire” neska, ez omen zen, gainera, arras egonkorra: noizik behin, alde egiteko joera izaten zuen, abisurik eman gabe. Ziur aski, sagardotegian egongo zen gure aiduru, afaltzeko tenorean. Gaur egun, ezin errazago konponduko zen afera, telefonoz deituta; urte haietan, ostera, tramankuluok ez ziren horren ohikoak.

Baserri-museoan bisita bukatuta, egitarauari jarraitu genion, normal-normal, ezer jazo ez balitz legez. Burumakur nindoan, kopetilun, baina gainontzekoek zein Ataungo giroak (taberna bat baino gehiago zegoen, bai horixe!) arean animatu ninduten.

Sagardotegira iristean, kolpe latza jaso nuen: Usoa ez zen agerri han. Non sartua ote? Gu, ni, bertan behera lagata, senitarteko gipuzkoarrekin geratu zen? Ezer larririk agituko zen menturaz? Ezin jakin. Historia osoko afaririk hitsena bizi izan nuen nik, buruan mila ideia zebilzkidala, zein baino zein ilunagoa.

Hurrengo eguerdian amak iratzarri ninduen, asaldatuta. Patxi zain nuen telefonoaren beste aldean, kontu larriren bat zela eta. Ahal bezala altxatu, buruko min itzelari muzin egin eta aparatuaurrean paratu nintzen:

-Aizu! Usoa ez da inon azaltzen. Beraren gurasoei, senideei, lagunei, baserrira, sagardotegira...deitu dut; alferrik, baina.

Albisteak hondoratu egin ninduen. Nire Usoa, koloreak irakatsi behar zizkidan neska eder hura, galduta!

Egunak, asteak eta akabuan, hilak etorri zein joan egin ziren. Albisterik bat ere ez. Usoa aienatua zen, erremediorik gabe, betiko.

Urteak ere igaro ziren. Ikasketak amaitu nituen, lana lortu, autoa erosi...Uste orokorraren arabera, dena nuen eskura zoriotsua izateko, baina nik ez nuen Usoaren oroitzapena burutik aldentzerik. Halako batean, goiz arrunt batean malenkoniatsu esnatu, autoraino hurbildu eta gidatzen hasi nintzen, entretenitze hutsagatik, noranzko finko barik. Errepidean “Donostia/San Sebastián” seinalea ikusi bezain laster, berriz, barruko zerbaitek bulkatu ninduen norabide hartan segitzera. 70 minutu eta 700 bihurgune geroago, Ezkio-Itsason nengoen, Igartubeiti etxetzarraren aurrean. Zer egiten nuen han? Zertarako nintzen joana?



Egilea:  
Maite Gurrutxaga

Baserria berriro ikustea ebatzi nuen, behiala bezalaxe. Hurrengo bisitarako ordu erdi inguru falta zenez, interpretazio-gunean ibili nintzen, denbora pasa, hango produktu, tresna eta enparauei begira. Argazki zahar batzuek erakarri zidaten arreta, orduan: bertako arropa, lanabes eta abarreatik, XIX. mendearen amaierakoak ziruditen. Zeregin hoberik ez nuela eta, luze begiratu nien. Tupustean, zainetako odola izoztu zitzaidan, bai eta arnasa loditu, izerdia atera, ileak lastu eta eskuak dardaratu ere, dena batera eta segundo-milaren batean: irudietako batean, laiari-aldratxo baten erdian, eskuetan laia bana, soinean ohiko baserritar janzkera, aurpegian etsipen sakona, eta ezkerreko belarrian ekilore tankerako arrakada bat zituelarik, hantxe zegoen Usoa, nire Usoa!

Argazki-oinak argi eta garbi zioen: “Igartubeiti etxeko maizterrak laiaketan. Ezkerretik eskuinera, Filomena Ezeiza, Tomás Jauregi eta beren seme-alabak: Juan Manuel, José Miguel, Paloma, Sabino, Maria Antonia eta Miren Teresa”.

# DENBORAREN JOANA;

## **oroitzeko** Nerea Guijarrubia **BEHARRA**

Denbora ez da inoiz alferrik igaro; bidean lorratzak uzteko gaitasuna erakutsi du beti. Horregatik, mendeetan barrera askok eta askok arerioatza jo dute; askoren aurpegietan arraildurak sortu ditu; batzuen oroitzapenak lapurtu; beste batzuen erraiak usteldu; eta ororen argia betiko itzali.

Horren guztiaren lekuko izan naiz, gertakari horien lekuko isila eta leiala. Usu, denboraren beraren gaizkide bilakatu naiz, eta halaxe igaro ditut mendeak, lur honetara gogor lotuta, sustrai sendoek bertara lotzen naute-eta. Denborak, zorionez, ez du lortu ni jatorritik deserrotzea eta gaur ere zutik jarraitzen dut, tinko: haizete indartsuei zein eurite gogorrei aurre eginez.

Bizitzan zehar, ene magaletik hamaika lagun igaro dira; belaunaldiz belaunaldi ugari izan ditut babespean. Gehienak urte askoan bizi izan dira, eta haien guda odoltsuen lekuko izan naiz, baita maitasun istorioen ikusle isilkorra ere. Bai; apopilo guztien irriak zein negar malkoak ikusi ditut, eta euren sekretu ezkutuenak eta sutze aldien oihu bortitzenak entzun ere bai.

Urteetan, mendeetan, lur honetako hizkuntza gozoa eta izaera sakona jagon ditut; handikien arrotasunetatik babestuz eta izateko modua gizaldiz gizaldi igorritz. Ez da lan samurra izan, arrotasuna inguruan maiz gailendu zaigu-eta. Haatik, atzoko kontuak memoriaren hormetan idatzi ditut, eta atsoen hitzak zein kondairak sutondoan betiko iltzatu, herriaren usadioak sekula gal ez daitezen.

Ene bizitzaren hasierak handitasuna ekarri zidan; denborak baina, eraman zuen; hura igaro ahala, gero eta gutxiago zaindu ninduten, gero eta gutxiago atondu, gero eta gutxiago maite... Ezkutuan utzi nahi den oroitzapen mingarria bezala neu ere urrun gorde ninduten; haiengandik aldendu, eta babesleku izatetik joandako garairen sinbolo hutsa izatera iragan nintzen...

Bai; niri ere denborak eraso egin zidan; eta konturatu orduko, arraildurak besteen azalean ez ezik, nire bazterretan ere agertzen hasi ziren. Denboraren iraganak, askori gertatzen zaion legez, ni ere bakarrik utzi ninduen. Ordura arte nire baitan dantza egindako kondairak, hizkera, usadioak, kantak... harri azpian eta habeek ezkutututa geratu ziren; ikusezin, mutu, azken finean.

Eta goiz batean, iratzarteko oilarraren kukurrukuaren zain nengoela, konturatu nintzen bizilagun guztiek ihes egin zidatela, eta egun hori lotan eman nuen, hurrengoak bezala, hurrengo hilabeteak eta urteak bezalaxe. Estu eta larri arnasten hasi nintzen; egitura zaharrari utsiz biziraun nuen, oroitzapenak lausotzen zitzaizkidan bitartean.

Baina letargia bukatu zen; orduan, otsail hasieran makilen kantuek lurra esnatzen duten bezala, neu ere kolpeen bidez iratzartzen hasi nintzen, eta denboraren poderioz, -berriro ere- arnasbideak ireki nituen, eta galdutako grina berreskuratu. Hasiera batean, ez nuen neure burua errekonozitu, garai zaharretan gordetakoak oso bestelakoak ziren-eta.

Bat-batean, atzoko etxeko giroan hegan egindako sagar usaina antzeman nuen, berriro ere. Pixkanaka-pixkanaka neure txokoa, jendarte berri honetan neure zeregina topatu nuen, neure ekarpen berria egiten ikasi nuen; hitz batean, biziberritu nintzen... ninduten...

Orduan, gogoratu nuen: gure lurraldeen sinbolo soil bat baino askoz gehiago naiz: gure izateko eraren gordailua, gure nortasunaren hizki larria, trasmisioaren oroitze tresna garrantzitsua.

Denborak mina ematen du, zalantzarik ez, baina benetan izatea suntsitzen duena ez-memoria da: ahaztea,

alegia. Oroitu, bizilagun maitea, oroitu ezazu. Gogoratu zergatik, zertarako sortu ninduten, eta oroimena tresna izanik, hori betiko gorde; baina, betiere, ingurua begiztatu, ingurura egokitu zaitez, arren.

Ni, beti bezala, hementxe izango naiz, bizikide: Igartubeiti baserria nauzu, zeure gordeleku gailena; beraz, ez nazazu ahantz. Horrela, beste hainbeste menderen ostean, gizaldi berri edo ez hain berri batean, gure hizkuntza eta aiurri sakonaren eramaile izaten jarrai dezadan.

Igartubeiti baserria, betiko gordeleku.



Egilea:  
Ainara Altuna

# BASERRIAK BARRE

**egiten**  
**DÜENEAN**

Patxi Zubizarreta

Atzo, iluna sartzearekin batera, Goliat niregana etorri, eta sagar gorri bat jarri zidan hanketan. Etxeko txakurra dugu Goliat, eta gurera ezagun bat hurbilduz gero, sagar ale bat ekartzen digu, gu jakinaren gainean egon gaitzen. Zaunka hasiko da bestela.

“Eguna, egunekoentzat; gaua, gauekoentzat”, dio esaera zaharrak, ondo esan ere, eta ni lasaitu egin nintzen iluntzeko bisita hura ez genuelako parte txarrekoa. Hala bada, dena delakoa ate joka hasi aurretik ere, kanpora atera, eta hantxe ikusi nuen Joanes, gaua argitzen zuen elur bisutsarekin, kapusaia erantzten. Etxeko guztiak ere berehalaxe inguratu zitzaizkion, bisitari irrikatuari ongi etorri beroa egitera.

Arrantzale jende askoren antzera, zumaiarrak Kizkitzako baselizara etortzeko usadioa du; baina arrantzale jendea ez bezala, bera Igartubeitiraino jaitsi izan zaigu. Negu aurretioan, arrainak eta kostaldeko eskolak, itsaskurkuiluak eta bitxiak ekarri, eta, trukean, gazta, dultzea eta sagardoa eramaten ditu. Eskumotza da Joanes, baina ikaragarri trebea ere bai, eta bikain moldatzen da bere esku bakarrarekin. Eta, hala ere, guk batik bat ipuin kontalari gisa maite dugu. Joanesen ipuinak atsegin ditugu, itsas aldeko kontuak, igarkizunak... Urtero-urtero, igarkizun berri bat ekarri izan digu, eta guk gero urtebete izaten dugu asmatzeko.

“Egun argitan, gaua egiten du; gaua gauago bihurtzen du eta kasik enaren abiadura bera du”, horra orain dela bi urte egin zigun erronka. Eta gu asmatu ezinik ibili ginen: hodeiak ote ziren, denbora ote zen... Baina, gau batean, Goliaten begiei begira, neronek asmatu nuen:

- Betazalak!

Eta asmatu banuen, asmatu nuen eta Joanesek maskorrez egindako lepoko bat eraman zidan opari. Baina Estefanak, ahizpa zaharrenak, aho tikiarekin gauero berari uzteko eskatu izan dit.

-Bularraldean, bihotzaren aldamenean edukitzeko... -Izan ere Estefanak bi aldiz maitte du Joanes: zerbait begien bistan dagoenean, kandelaren beharrik ez. Eta biok gela berean lo egiten dugunez, itsas kontuekin argitzen ditugu gure gauak: Santa Lutziko urak Oria errekaraino doazela, eta handik itsasora; edota, itsasoa gaiztotzen denean, itsas txoriak gureganaino etortzen direla babes bila, Joanes bezalaxe, eta haren istorioak berri bitartean lokartzen gara.

Horrexegatik ni pozak txoratzen nengoen Joanes ere aurtan gurera itzuli zelako. Baina berak afari legea egiten zuen bitartean, arratsaldean tristetxo egon nintzela gogoratu nuen. Kontua da, baserrian, sagardoa egiteko dolarea lanean jarri zutela, eta tramankulua sagarra zanpa eta zanpa hasi zela, kirrinka-karranka. Orduan nik, baserriko habeak eta gapirioak dardaran eta dantzan sentiturik, Estefanari ikaraz esan nion:

-Hasi da berriro ere baserria negarrez. Ez zaigu ba eroriko, ezta?

-Ezta pentsatu ere, Kattalin. Oraingo negarrak eta gero, urtebeterako kantuak eta barreak izango ditugu. Ikusiko. Eta muztio gozoa...

Hala ere, lehendik ere tristetxo nengoen ni, urtebete baitzen Joanesek azken igarkizuna egin zigula. Eta gurean inortok ere aipatzen ez zuen arren, ziur nago azken momentura arte denok ala denok ere asmatu ezinik genbiltzala. Baita Estefana ere. Batik bat Estefana.

*Urik gabe, ura edaten dugu.*

*Urarekin, sagardoa edaten dugu.*

Bai, Joanes atzo etorri zen, baina erantzunak gaur arte ezin eman, izan ere gaur iluntzean elkartzeokoa baikinen, baita Salete, Aristizabal eta inguruetako baserrietakoak ere. Horrexegatik afaldutakoan, ipuin eske hasi gintzaizkion. Eta gure poza, bera sutondoan eseri, belaunburuan txapela kokatu, egurrezko esku geldoa gainean pausatu, eta tarra-tarra-tarra ekin zionean!





Egilea:  
Maite Gurrutxaga

-Behin batez, bi lagun Aralarrera joan ziren arratsalde pasa. Batek txabola zeukan bertan, baina hara iritsi zirenean, sasiak hartuta topatu zuten. Orduan, sasiak baztertu, giltza atera, eta barruan sartu zen. Hurrena, lagunari esan zion: "Orain itxi atea, ni hemen utzita. Gero, alde hemendik eta bota giltza itsasora, ahal duan urrutiena. Ni hemen geratuko nauk".

>>Horixe egin zuen lagunak, eta denboraren poderioz txabola eta laguna ahaztu zituen. Egun batean, joan da mutil hori Donostiara eta, arrandegi batean zegoela, arrain bati tripatik giltza atera ez zioten ba! Orduan akordatu zen lagunaz, eta horrexegatik eskatu zuen giltza hura.

>>Hurrengo egunean bertan Aralarrera itzuli, eta txabolara inguratu zen, lagunaren arrastorik ote zegoen. Orduan, sasiak ahal bezala kendu, atera iritsi, eta hots egin zuen: 'Bizi al haiz?'. Eta lagunak: 'Oraindik bai'. Eta atea giltza harekin zabaldua, barrukoak esan zion sagu batzuekin gorabeherak izan zituela, baina oso ondo zegoela. 'Belarri puntak pixka bat jan zizkidatek, besterik ez'. Eta txabola giltzaz itxita, biak herrira itzuli ziren, arratsaldeko ibilaldi bat egin balute bezala>>

Etxekook, ordea, ez genuen Joanesen igarkizuna ahaztuta; ez horixe, baina giltzarik ere ez hura argitzeko... Horrexegatik ausartu nintzen aztarnaren bat eskatzera, argibideren bat sikiera.

- Bizitzan bi kolpe jaso ditut nik. Bata, hamabi urterekin, ama galdu nuenean. Eta bestea, hogeita batekin, eskua itsasoko ezbehar batean galdu nuenean —esan zigun su lamei begira, eta denok isil-isilik geratu ginen, eta ez dakit baserriak orduan zergatik ez zuen negar egin-. Horrexegatik estimatzen dut nik bizirik egotea, gauean non oheratu izatea, izara artean goxo... Oraintxe bertan, itsasoan makina bat arrantzale egongo dira arriskuan. Baina gero, portura onik itzulitakoan, haien poztasuna! Arrantza ospatzen dute orduan, baina batez ere bizitza, eta bizipozez elkarren alde egiten dute topa.

Nagusiek topa egin zuten orduan. Beharbada guk ere bagenuelako izara artean goxo egoterik. Eta handik gutxira oheratu ginen, baina igarkizunaren erantzun faltak ezinegona eragiten niri, eta lo eza. Ahizpa ere berdintsu egongo zen, ohean batera eta bestera sumatzen bainuen. Gainera, Joanesen argibidea igarkizuna bezain iluna iruditzen zitzaidan. Baina noizbait ere loak hartu nau eta amets egin dut, artazuriketari, Estefanari artaburu gorri bat agertu zaiola eta, horrekin musu emateko eskubidea jasota, Joanesi eman diola... Baina

gero holako zarramarra entzun dut eta ikaratuta esnatu naiz, belarrietan arratoiak hozka banitu bezalaxe.

Hotsak sukaldetik zetozen eta, hara hotzak eta isil-gordean joanda, Estefana beheko suari eragiten ikusi dut. Baina ez zegoen bakarrik. Joanes ere jaikita zegoen, eta Goliat laztantzen ari zen.

-Suari eta itsasoari begira, sekula ez naiz aspertzen... esan du, eta handik gutxira-: Barkatu atrebentzia, Estefana, baina azkazalak mozten ez naiz batere ondo moldatzen, lotsa ere ematen dit horren luzeak izateak, eta akaso zuk... Gainera, gaur larunbata izaki... -Gizonak ere bazekien, nonbait, zeregin horretarako asteburuko egunak direla aproposak. Eta gustatu egin zait Joanesen esku bakarra Estefanaren eskuen artean ikustea, baserriaren antzeko dardarizoarekin, eta ahizpa, guraizeak hartuta, kontu handiz hasl zaio, grisk eta grask. Baina goiz zen artean, eta berriro ere ohera itzuli naiz ni, izara artean goxo, eta lo susta bat egin dut berriro ere. Ametsetan, Estefana Joanesek ekarritako legatz bat garbitzen ari zen, eta gizonak esan dio itsaso liho soro handi bat bezalako delatela, amaigabea eta urdin-urdina, eta ez daukala zerikusirik guk Kizkitzatik edo Murumenditik ikusten dugun urrutiko zerrrenda ubelarekin. Bertatik bertara ikusi beharra dagoela. Baina hara non, ustekabean, ahizpari legatz barruan giltza bat agertu zaion! Haren ametsetako garrasiarekin esnatuta, giltzak zer pentsatua eman dit, eta gogoratu dut Joanesek nola kontatu izan digun itsasoak aldiak izaten dituela, itsasgorak eta itsasbeherak, eta itsasontziek marea handia behar dutela lehorreratu ahal izateko. Orduantxe jabetu naiz! Arrantzaleek ura behar dute porturatzeko, eta orduan edan dezakete sagardoa, orduan egin dezakete topa; bestela, ur faltan zain egon behar, itsasontzian geratu zaizkien ur hondarrak edanez...

-Zu etxerako! –atera zaio gero Estefanari, erantzuna aho tikiarekin jakinarazi diodanean, eta masailak gorri-gorri ikusi dizkiot, Goliategen sagar gorria ekartzen digunean bezala.

Eta ez dakit noiz poztu naizen gehiago: igarkizunaren erantzuna bururatzean; gero kanpoan elurra egin, eta ingurumari guztia zuri-zuri ikustean; edo, iluntzean, Estefanak, nire erantzuna denen aurrean pozarren azaldu, eta Joanesek maskorrezko lepokoa jarri dionean. Dakidan bakarra da beste inork ezin izan duela igarkizuna asmatu eta, trukean, ahizpari eskari bat egin diodala:

- Egunen batean, zuek biokin trenez joan nahi nuke itsasoa ikustera.

Eta sutondoan izara artean bezain goxo egon gara, kontu-kontari, eta zain, urik gabeko itsasontzien antzera, Joanesek datorren urterako igarkizuna noiz egingo. Eta, halako batean, esku bakarra altxatu, eta ezker-eskuineko mugimendu bat egitearekin batera, esan digu:

*Biltzen gaituen gaztain morkotsa edo intxaur oskola da:  
biltzen ditu adinak,  
biltzen arimak,  
biltzen lodiak eta arinak.  
Zer da edo zer ez ote da?*

Jesus amen batean, burutazio bat izan dut: baserria da! Baina oraino ez dut hitz erditxorik ere esan, eta ez dakit nola eutsiko diodan urtebete osoan... Eta barre egin dut nik eta barre egin du baserriak.

# KUPELA

## **bete** **MUZZIO**


Gorka Azkarate

Urrutiko itsasoetara arrantzara joan ohi ziren arrantzaleen egarria asetzeko erabiltzen omen zen garai batean, gehienbat, Igartubeitiko dolareari erauzitako sagardo gozoa. Etengabe doa aurrera denbora, ordea, eta aspaldiko ohitura eta bizimoldeek gaur egungo eromenari eman zioten paso orain zenbait hamarkada. Gaur egun dena da garapen, gehiago-nahi eta hazteko irrika. Dena da porlan, abiadura handi eta auskalo nora iritsi nahi burugabe.

Porlanaz badaki zerbait Abodou-k, badakienez. Gezurra dirudi, Senegal bezalako lurralde argitsu batean egunero eguzki galdatan bizi den edozein gaztek Kizkitzako basoko gaurik itxi eta ilunenaren pareko etorkizuna izatea. Bere azalaren kolorekoa, alegia. Porlanezko hesi erraldoi hirukoitz batek bereizten baititu lehenengo mundua eta hirugarrena. Ustezko etorkizun oparoa eta etorkizunik eza.

Porlanezko hesia gainditu nahi ez duenaren alternatiba, berriz, ez da samurragoa: edozein unetan olatu kolpe batek hondora dezakeen halamodzuko ontzi batera igo eta norbere patua itsasoaren kontrako borrokaren esku uztea. Abdou-k eta bere gurasoek bigarren aukeraren aldeko hautua egin zuten. Dakar atzean utzi eta Marokoko kostalderaino eramango zituen kamioi zaharkitu batera igo, hasteko, eta itsaso zein eguraldi baldintzak Gibraltar itsasartean ahalik onenak izango ziren gau baten zain egon, ondoren, beste hogeita hamar senegaldarrekin batera, noiz ontziratuko...

Egilea:  
Eider Eibar





Abdou-k oso zorteduntzat zuen bere burua, ordea, bere bizitza goitik behera aldatuko zuen bidaia hark amaiera zorientzua izan zuenetik batez ere. Bere bizitza ez ezik, bere gurasoena ere erabat aldatu zuen bidaia hark, eta bere moduko senegaldar oso gutxiak kontatzen halakorik. Asko ziren hirugarren mundutik lehenengora jauzi egin nahi eta bidean betiko geratzen zirenak. Eta euren xedea herrialdean baino okerrago bizi beste erremediorik ez zutenak. Atzera berriz jatorrizko herrialdera itzultzen zirenak kontuan hartu gabe, noski. Bai, zinez zen zorteduna Abdou. Milaka kilometroko ibilbide hartan guztia larrosa kolorekoa izan ez bazen ere, berez.

Bezperan izan balitz bezala gogoratzen zuen iparraldeko herrialde deskubritu berri hartako parajeak eta mendi mazelak lehenengoz bere bi begiez ikusi zituen eguna. Erabat txunditu zuen guztia estaltzen zuen kolore berdeak, txoko bakoitzak isurtzen zuen hezetan. Han eta hemen barreiatuak eraikin zuriak (gerora jakingo zuen bertako jendeak *baserri* izenez ezagutzen zituela eraikin haiek; *baserri*, *baserri*, belarrian kili-kili egiten zion erre bikoitz hark bertako jendearen ahotan ebakirik...). Etorkinak nekez utzi ohi dio etorkin izateari, munduko edozein herrialdetatik beste batera jauzi egin duen edonork daki hori. Are gehiago Afrika baldin bada etorkinaren jatorrizko herrialdea eta ikatza baino ilunagoa bere azalaren kolorea. Abdou-ren kasua, labur esanda.

Hiriburuko zalaparta ez zuen Abdou-k oso gustuko; ezta bere gurasoek ere. Dakar aldeko hondartzan lasaitasunaz oroitzen zen Abdou, tabernaz-taberna bere orgatila aldean harturik jende artean hara eta hona ibiltzea tokatzen zitzaionean, galtzerdiak, esku-zapiak, mugikorretarako estalkiak eta ezertarako balio ez zuten bestelako pitxiak saltzen saiatzen zen bitartean. Hiriburuko egonaldiak ez zuen luzeegi jo, ordea. Abdou-ren aitak barnealdeko bailara bateko behi-ustiakuntza batean lanpostua aurkitu zuen erdi karanbolaz, ziur aski beste inork nahi ez zuen lanpostua, bistan da, baina jaten emango ziena, gutxienez. Horrela, hiriburua utzi eta barnealdeko bailara ezkutu hartara egin zuten jauzi, zalapartatik lasaitasun girora, etengabeko joan-etorri erotik ibili sosegatura.

Ostatu hartzeko garaian hirugarren munduko etorkinek ez dute lehenengo mundukoek bezainbeste baldintza eta eskakizun, hots, edozein bazter ziztrineta bizitzera ohitua daude. Horretan trebatu ditu patuak, beste ezertan baino hobeto, trebatu dituzte. Horrela, erortzear zegoen baserri zahar abandonatu batean aurkitu

zuten eurentzat moduko aterpea, zeina Abdou-ren aitak lan egingo zuen behi-ustiakuntzatik gertu xamar zegoen. Ordura arte aurrez sekula ikusi gabeko egurrezko egitura eta guneen banaketa berezia zeuzkan baserri zahar hark, haseratik beretik arreta piztu zuena, Abdou-rengan ez ezik baita bere gurasoengan ere. Sukalde zahar bat, logela, behiek atseden hartzeko ikuilua... kokapen horiek erraz xamar identifikatuko zituen Abdou-k baserri zaharrean barrena emandako lehenengo itzulian, baina baserriaren goiko solairua, mandioa, egurrezko habe erraldoi hura, lauki formako aska, aska hark alde batean zeukan zulotxo, zeinetatik beheko solairua ikus zitekeen... Zer arraio zen hura guztia? Eta zer arraio ziren mandioan pilatutako ohol solte haiek guztiak? Eta ikuiluan zegoen torloju birakari hura? Halakoak al ziren iparraldeko herrialde hartako baserri guztiak? Hamaika galdera zerabiltzan uneoro Abdou-k buruan, erantzunik aurkitu ezinda. Erantzunik aurkitu ez arren, ordea, baserri hura sorginduta zegoela xuxurlatzen zion tarteka Abdou-ri, aurrez sekula entzun gabeko bere barneko ahots ezkutu batek. Ea hori zen harrigarriena!

Abdou-ren aitak minutu gutxitan egin ohi zuen goizero baserritik lanerako bidea, oinez. Lanaldi luzea bezain gogorra zen aitarena, eta gau partean berandu itzuli ohi zen baserri zahar abandonatu hartara, berandu oso. Abdou-ren ama etxeko lanez arduratzen zen eta Abdou-k, orgatila lagun, batetik bestera ematen zuen eguna, herriz-herri, tabernaz-taberna, ezezkoz-ezezko... Tarteka trenaz baliatzen zen, beste batzuetan autobusaz... baina gehienetan oinez. Lehendik ere hankazpiak urraduraz eta ubelduraz beteak bazituen, Senegalen handik hona korrika ibiltzearen poderioz, iparraldeko herrialdeko bizitza berriaren egoerak ez zuen hobera egin. Etsigarria zen, etsigarria zenez, bere bizitza, bertako 12 urteko gainerako gaztetxoek bizitza erosoekin alderatuz. Senegalen atzean utzitako bizimodua, hala ere, ez zen hobea. Horixe izaten zen Abdou-k baliatzen zuen kontsolamendua, gauero-gauero, baserri zahar hartako mandioko lastairan loak hartzen zuen bitartean.

Eguzkia mendebaldeko mendi-gailur garaienen atzean ezkututzen zen unean isiltasuna eta patxada areagotu egiten ziren baserri zaharrean eta inguruetan, eguna joan eta eguna etorri. Udako beroa udazkeneko epelari eman zion paso, eta eguzki orduak dexente murriztu ziren asteak aurrera joan ahala. Hegoak gogotik jotzen zuen bolada hartan, eta baserri zaharraren horma abaiuetako zirrikietatik sartzen zen txistuka, baserria bera dantzan jartzen zuen bitartean, bateko kirrinka hots eta besteko karraska. Egun haietan kosta egiten zitzaion Abdou-ri, benetan akiturik egon arren, begiak itxi eta loak hartzea.

Gau haietako batean, lastairan etzanda loaren muga lausoan kulunkan zegoela, behien marru hotsa entzun uste izan zuen Abdou-k ikuilutik zetorrela. Nola, baina, horrelako marru hotsik baserri zaharrean, Abdou-k eta bere gurasoek ganadu bururik bakarra ere ez zeukatela kontuan hartuz? Baina bai, behin ez ezik birritan eta hirutan ere entzun zuen, argi eta ozen gainera, Abdou-k, bere lastaira halamoduzkotik, behien marru hots adierazgarria. Baita gehiagotan ere. Hegoak gogor jotzen zuen gau hartan ere, eta haizearen txistu hotsa areagotu egin zela iruditu zitzaion Abdou-ri, behien marru hotsak hartara bultzatu izan balu bezala, hego haizea bera ere. Segundu gutxiren buruan, baserriaren atarian behar lukeen zakurrak zaunka eginaz eman zuen arrapostu, behien marru hotsari gailentzeko ahaleginean. Erabateko harriduraz ikusi zuen Abdou-k mandioko bere txokotik, sagarrez goraino beteriko aska, eta sagarrak zanpatuz, kolpe eta kolpe, ttakun eta ttakun, askan sartuta etengabeko lanean ari ziren lau gizon sendo bezain bulartsu. Gogotik saiatu arren, ez zen gizon haien aurpegiak bereizteko gai, mandioa argiztatzeke Abdou-k eta bere gurasoek erabiltzen zuten kriseilua ia amataturik baitzegoen ordurako. Nortzuk ote ziren? Zertan ari ziren baserri zaharraren mandioan gaueko ordu haietan? Baserri zaharra negarrez hasi zen orduan, kirrika hots ozenak hedatuz lau haizetara. Mandioko habe nagusia mugitzen hasi zen, berau ikuiluarekin lotzen zuen torlojuia biriaka hastearekin batera. Zakurrak zaunka egiten jarraitzen zuen, behiek ere aztoraturik ziruditen oso, ikuilutik zetorren zalapartari erreparatuz bederen, eta hego haizeak ez zuen baretzeko zantzurik. . .

Apenas sorrarazi zuen oihartzunik baserri zaharraren hormetan Abdou-k bota zuen oihu lehorrak. Begiak zabaldu zituen eta gorputz guztia blai eginda zuela konturatu zen. Aztoratuta zegoen erabat. Burua alde batera eta bestera mugitu eta mandioan betiko lasaitasuna zen nagusi, nahiz eta hego haizeak baldar jarraitzen zuen kanpoan. Aitaren zurrunga hotsa zetorren beheko logela nagusitik, eta ez zen behien marruen arrastorik, ezta zakurraren zaunka arrastorik ere.

Gaur hartan ez zuen une hartatik aurrera begirik lotu Abdou-k: mandioko sabaira begira eman zituen ilargiak eguzkiari txanda eman arteko gainerako orduak. Goizean, gorpuzkera arraroz jaitsi zituen mandioko eskailerak amak sukaldetik egindako deiari erantzuna emanaz. Gosariak ere ez zion mesederik egin Abdou-ri. Eta egoerak ez zuen hobera egin, bere lanaldia hasteko asmoz ikuilura salgai txatxuz beteriko orgatila hartzera joan eta kupela zaharkitua sagar muztioz goraino beterik zegoela ikusi zuenean.

